



# Udalerriko presoak erroldan mantentzeko udalen betebeharra

Arartekoaren 6/2020 Gomendio Orokorra,  
2020ko abenduaren 14koa

**ararteko**

Herriaren Defendatzailea  
*Defensoría del Pueblo*



**Arartekoaren 6/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko abenduaren 14koa**

**Udalerriko presoak erroldan mantentzeko udalen betebeharra.**

## **1. SARRERA ETA AURREKARIAK**

### **1.1. Sarrera**

Arartekoak, espetheen alorreko hirugarren sektoreko norbanakoek eta erakundeek egindako kexa asko jaso ditu. Horien xedea, presoek eta preso ohiek jaso ditzaketen prestazioak eta zerbitzu publikoak eskuratzeko dituzten zailtasunak azaltzea da.

Kexa horiek aztertu eta horietako asko ebatzi ondoren, ondorioztatu dugu, askotan, prestazioak eta laguntzak jasotzeko zailtasunak sortzen dituen arrazoia dela, presoak ez direla egoten udalerrietan erroldatuta, edo udalerrietan erroldatuta egon gabe ere, ez direla egoten espetxean erroldatuta, nahiz eta ordenamendu juridikoan hori agertu.

Arartekoak, gainera, udal erroldaren inguruan askotariko jarduketak egin ditu, bai banakako kexetan bai ofiziozko jarduketetan eta erroldan inskribatzeari eragiten dioten gainerako gomendioen jarraipenean<sup>1</sup>. Ondorioz, Arartekoak esku-hartze asko egin ditu urte hauetan zehar, izan ere, erroldatuta egotea ezinbesteko baldintza da eskubideak egikaritzeko eta gizarte babeseko euskal sistemako zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko.

Presoen erroldatzeko kasu bereziaren araudi aurreikuspena, 2015. urtetik aurrera dago zehaztuta, eta, aldaketarik gabe eguneratu zen agiri honetan: [2020ko apirilaren 29ko ebazpena, Idazkariordetzarena, Estatistikako Institutu Nazionalaren Presidentetzaren eta Erkidegoetako eta tokiko lankidetzako Zuzendaritza](#)

---

<sup>1</sup> Beste batzuen artean, hauek: 2009ko martxoaren 30eko ebazpena, 2008ko abenduaren 19koa, 2008ko irailaren 15ekoa, 2008ko irailaren 16koa, 2008ko uztailaren 4koa, 2006ko martxoaren 23koa eta Arartekoaren 2005eko azaroaren 21eko 18/2005 gomendio orokorra: *Udalek Europako erkidegokoak ez diren atzerritarren erroldako izen-ematea eta iraungipena erabakitzeak eta datuak beste administrazio publiko batzuei uzteko erabiltzen duten prozedurari buruzko zenbait gogoeta*; 36 udali zuzendutako ofiziozko jarduketa. Udalerririk horietan, adingabekoei edo gizarte bazterketa egoera larrian edo etxerik gabe dauden pertsonen zuzendutako egoitzazko baliabideak daude ([www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)).

*Nagusiaren 2020ko otsailaren 17ko Ebazpena argitaratzen duena; horren bidez, udalei jarraibide teknikoak agintzen zaizkie udaletako errolden kudeaketaren inguruan (2020ko apirilaren 29ko ebazpena, 3.4. puntua).<sup>2</sup>*

Arartekoak egiaztatu du, hala ere, araubide hori nahiz eta oso berria ez izan, oraindik ere ez dela ezaguna, bereziki, udalen alorrean, izan ere, udalerrietako biztanle gutxiri eragiten dion araubidea da eta gizartean hain ezaguna ez den errealitate bati buruzkoa da, eta, nagusiki, erroldari buruzko araubide oro zuzentzen duen egoitza eraginkorraren printzipioa nabarmenki aldatzen du, eta, beraz, lehenengo graduako salbuespena da, izan ere, kontuan hartzen ditu preso dauden pertsonak udal erroldan inskribatuta mantentzea zailtzen duten inguruabar bereziak. Arartekoak badaki udalek zailtasunak dituztela, eta, horregatik, beharrezkotzat jotzen du espetxean dauden pertsonen erroldari buruzko hausnarketa egitea, izan ere, erakunde honetan izapidetutako kexa askoren xede da gai hori.

## 1.2. Aurrekariak

Hauxe da Arartekoak gai honi buruz dakiena. Trafiko segurtasunaren aurkako delituak edo genero indarkeriari lotutako delituak direla-eta presoek kopurua gehitu da eta espetxeetan preso dauden pertsonen gizarte profila nabarmenki aldatu dira, eta gehienek, askotan, gizarte bazterketako prozesuak sufritzen dituzte, eta horiek, denboran irauten dute eta espetxeetan behin baino gehiago egonez gero, larritu egiten dira. Modu horretan, espetxean egotea, gizarte bazterketako faktore bat da, eta, ondorioz, askatasunik gabe aldi luzeak igaro dituzten preso gehienek gizarte eta familia loturak haustearen prozesua azkartu dezakeen edo lotura horiekin bukatu dezakeen faktorea da. Hala, espetxeetan egondako denboran, udal errolda ere galdu egiten dute presoek.

Errealitatea, beraz, hauxe da: salbuespen kasuetan ez ezik (etxebizitzaren jabeak direnean edo familiarekin harreman sendoak dituztenean), denbora bat igaro ondoren, jatorrizko udalak, preso dauden pertsonak baja egoeran jartzen ditu erroldan. Hori gehiago gertatzen de Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrekin, izan ere, epe luzean bizitzeko administrazio baimenik ez dutenean, bi urtean behin errolda berritzeko legezko betebeharra izaten dute. Alokairuko pisuetako maizterrekin ere askotasun gertatzen da, maizter berriak bakarrik une horretan etxebizitzan bizi diren pertsonak inskribatuta egotea nahi duenean, hain zuzen ere. Egoera zailenetan, batzuetan, ez da egoten espetxean sartu aurreko erroldarik, besteak beste, alokairuko etxebizitzetan legezko kontraturik gabe bizi ziren pertsonen kasuetan. Arartekoak ezagutu duen eta maiz gertatzen den beste egoera

<sup>2</sup> *"Presoak erroldatzea. Espetxea kokatutako udalerrian presoak erroldatzeko, presoek eskaria egin beharko dute. Presoen nahitaezko erroldatzea onartzeak, espetxeetako gainerako zigorra ezartzea ekarriko luke, eta, berriaz aurreikusita ez dagoenez, Espainiako Konstituzioaren 25. artikuluan aurreikusitakoaren aurkakoa litzateke. Alderantziz, presoek eskubidea dute ohiko etxebizitza gisa errolda ondorioetarako esleitutakoa aukeratzeko, eta, beraz, egoitza eraginkorra ez da kasu hauetan aplikatu beharreko irizpidea. Horri buruz ezarri daitekeen muga bakarra da, erroldarako aukeratutako etxebizitzarekin loturarik ez egotea (edo egon bada ere, jada ez existitzea horrelakorik). Adibidez, etxebizitzan beste pertsona batzuk bizi direlako eta presoak horiekin harremanik ez duelako, edo etxebizitzan erroldatutako pertsonak, modu arrazoituan preso dagoen pertsonaren baja eskatu dutelako".*

bat da presoek alokairuko etxebizitza bat partekatzen dutela espetxean sartu aurretik, eta bizilagunek, espetxean sartutako pertsona eroldan bajaran ematen dutela, izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eta bestelako laguntzak jasotzeko, etxebizitza berean erroldatuta dauden pertsonak kontuan hartzen dira.

Bestalde, Bizkaiko edo Gipuzkoako presoek eroldarik ez dutenean, eta, ondorioz, beraien lurraldeetan gizarteratze zerbitzuak edo zerbitzu sozio-sanitarioak jasotzeko eskubiderik ez dutenean, Zaballako espetxean (Araba) erroldatzen dira, hala, hirugarren graduaren onuradun bihurtzeko eta kanpoan baliabiderik ez dutelako, espetxean zigor guztia ez betetzeko (hori zigor erantsia da). Kasu horretan, Bizkaian eta Gipuzkoan **Gizarteratze Zentrorik** (espetxe ekipamendua, erdi-askatasun araubidean dauden presoek zuzendutakoa, Arartekoak Eusko Legebiltzarrean urtero aurkeztu dituen txostenean erreklamatu duena) ez dagoenez, arazo handiak sortzen dira, hura baita zigorra betetzeko espetxe nagusia. Preso atzerritarrei dagokienez, horiek, espetxea kokatutako udalerriko errolda erabili dezakete erregularizazio prozesuetan, eta hori kontuan hartu beharko dute udaletako immigrazio teknikariek, horietatik sortu daitezkeen ondorioak direla-eta.

Hala ere, atzerritarrekin lan egiten duten espetxe alorreko hirugarren sektoreko erakundeen ustez, kontuan hartu behar da baita ere kolektibo horren errealitate larria, Arartekoak salatu moduan. Laburbilduz, esan daiteke, Euskadin, atzerritarrek, gehiago sartzeko direla espetxeetan eta gutxiago ateratzen direla espetxeetatik. Espetxeetan gehiago sartzearen arrazoia ez da delitu gehiago egiten dituztela, baizik eta, kasu askotan, adibidez, ez dituztela lokalizatzen beraien etxebizitzetan isun eta kondena txikiak betetzeko, eta, hortaz, haien aurkako bilaketa- eta harrapaketa-aginduak ematen dituztela. Eta espetxeetatik gutxiago ateratzen dira, beraien bizileku- eta lan-baimenak iraungitzen direlako, bai eta pasaportearen ere, espetxean ezin dituztelako horiek berritu. Era berean, urtebete baino gehiagoko zigorrak dituztenean, pertsona horiek lurraldetik kanporatzea erabaki daiteke, eta horrek eta gizarte eta familia loturarik ez izateak, baimen falta eta graduatan aurrera ez egitea sortzen du, kanpoan baliabiderik ez dutelako. Horrenbestez, zigor osoa espetxean betetzen dute, eta errolda galtzetik haratago, babesgabetasun egoera juridiko, legal eta gizartekoan egoten dira.

Arartekoak, beste kasu batzuk ere ezagutu ditu. Horietan, presoek ezin izan dute askatasunik izan zigorra bukatu arte, eta zigor guztia espetxean bete dute edo baldintzapeko askatasunaren araubidean. Kasu horietan, espetxe araubidearen barne dauden edo ez dauden preso-ohiak (baldintzapeko askatasuna), askotan jatorrizko udalerrietan bizi dira eraginkortasunez, bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzetan edo kalean, etxebizitzarik ez badute. Horrelako egoeretan, udalek, kontuan hartu beharko lukete [2020ko apirilaren 29ko ebazpenean](#) jasotakoa. 3.3. puntuan, erroldatzeko inguruabar berezietan, jasota daude *“bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituzten etxeetako erroldatzeak eta etxebizitzarik ez duten pertsonen erroldatzeak”*. Horren arabera, bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzak (txabolak, karabanak, haitzuloak, eta

abar, eta teilaturik gabeko lekuak baita ere), etxebizitza baliozko gisa agertu beharko lirateke erroldan". Bestalde, zilegi litzateke etxebizitza faltsu bat erabiltzea etxebizitzarik ez duen pertsona bat ohiko moduan udalerrian bizi denean eta gizarte zerbitzuek egoera horren berri dutenean. Ondorio horietarako, erroldako helbidea, gizarte zerbitzuek zehaztuko lukete: gizarte zerbitzuen helbidea, udaleko aterpetxearena, pertsona horrek gaua pasatzen duen puntu geografiko zehatza, eta abar.

Horri dagokionez, Arartekoak gomendio honetan adierazitako praktika onak ere kontuan hartu beharko lirateke: *Arartekoaren 5/2011 gomendio orokorra, urriaren 17koa. Udalek beren udalerrietako egoitzetan bizi diren etxerik gabekoak eta foru aldundiek tutoretzapean dauzkaten adingabeak udal erroldetan jasotzeko jarduerak egiteko betebeharra*. Zehazki, seigarren puntuan, udalei gomendatzen zaie, jarduketa protokolo bat sortzeko etxebizitzarik ez duten pertsonentzat. Bertan, udaleko gizarte zerbitzuen edo, hala badagokio, foru aldundietako bigarren graduako gizarte zerbitzuetako eta/edo etxerik ez duten pertsonekin lan egiten duten gizarte erakundeetako esku-hartzeak ezarri beharko lirateke. Protokolo horretan jasota egon beharko litzateke, baita ere, udalerrian eraginkortasunez bizi diren pertsonak udal-erroldan inskribatuta egoteko duten eskubidea. Erroldan ofizioz bajan ematea aurreikusita dagoenean, Herritarren eta lurralde mugapenaren araubidearen aurreikuspenak bete beharko dira, 72. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoak ofiziozko bajei buruz, eta, bereziki, interesatuaren entzunaldi izapidetzeko betekizunak.

### 1.3. Ondorioak

Pertsona bat espetxean sartzen denean, espetxe sistemaren xedea, askatasun galeraren zigorra pertsona hori gizarteratzeko bideratzea da. Espetxeko tratamenduan, pertsonak askatasunean bizitzeko prestatu behar dira, eta, horregatik, tratamendu hori, graduen arabera sailkatuta dago. Lehenengo graduan, kalifikazio espezifikoa duten presoak daude, eta araubide itxia da, espetxe baimenik gabekoa. Bigarren gradua, derrigorrez bete behar da. Hirugarren gradua izateko (pertsona horiek espetxera lo egitera joaten dira bakarrik eta horrenbestez, prestakuntza, lan edo desintoxikazio jarduera eta programetan parte hartu dezakete), orokorrean, espetxeko tratamendu batzordeak baimena eman behar du betekizun batzuk betez gero. Horien artean, presoak jokaera ona izatea dago, eta, gainera, bermatuta egon behar da ez duela berriz ere deliturik egingo (gizarteratzeko aldeko aurreikuspena) eta kanpoan etxebizitza eta baliabideak izan behar ditu.

Hala ere, espetxe arloko hirugarren sektoreko erakundeek zehaztu moduan, arazo horiek ez dira konpontzen kanpoko baliabideetan behin errolda izanez gero, alderantziz, gizarteratze baliabide batean sartzeko zailtasun horiek, plaza nahikoa egotetik haratago doaz. Espetxe barruan, gizarte eta administrazio deserrotzea (errolda galtzeaz gain edo autonomia erkidegotik kanpoko espetxe batean egoteaz gain) etengabe gertatzen den egoera da, bereziki, behar bereziak dituzten presoan artean. Osasun mentalekin eta adikzioekin lotutako arazoak dituzten geroz eta

preso gehiago daude, eta horiek ez dira sartzen komunitatean gizarteratzeko antolatutako gizarte eta lan profiletan. Horregatik, erakunde horiek salatzen dute kanpoan baliabide espezifikorik ez egotean, espetxeak baliabide sozio-sanitario bihurtzen direla, eta ez daudela horretarako diseinatuta ezta prestatuta.

Bestalde, baldintzapeko askatasuna, presoek zigorraren hiru laurdena betetzean eman daiteke (kasu zehatzetan, epe hori aurreratu daiteke baita ere). Baina, era berean, presoek kanpoan gizarteratze baliabiderik ez dutenean (famiaren laguntza bermeduna edo elkarte edo baliabide publiko baten bidezkoa), zaila da gradua aldatzeko baimena eskuratzea.

Espetxeko egonaldia onduz familiarekin, gizartearekin edo komunitatearekin harremanak galtzean, preso horietako askok, jatorrizko udal errolda galtzen dute, non, aldeko espetxe garapenarekin, azaldutakoak bezalako askatasun partzialeko neurriak izan ditzaketen.

Bestalde, espetxean erroldatzeko aukera preso guztiek duten eskubide bat da espetxea kokatutako udalerrian gizarteratze prozesuak hasi ahal izateko, betiere, jatorrizko lekuan loturarik edo erroldarik ez dutenean. Aukera hori, aurretik adierazi den moduan, preso guztiek dute, eta, bereziki, atzeritarrek, beraien legezko egoera dela-eta. Hala ere, nahiz eta erroldatzeko aukera hori guztiz legezkoa izan, arazoak sortzen ditu, izan ere, Euskadi, lurralde eta erakunde mailan eta gizarte zerbitzuei dagokienez, lurralde historikoen arabera banatuta dago. Modu horretan, Iruña Okako erroldan inskribatutako presoen kopuruak gaintu egiten ditu Zaballako espetxea kokatuta dagoen udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzuen baliabideak, eta, Arabako Foru Aldundiak, presoen gizarteratzeko baliabideen behar handiagoa du beste lurralde historiko batzuekin alderatuz, zeintzuek, era berean, ez duten ezta ere gizarteratzeko zentro sozialik.

Gainera, kontuan hartu behar da espetxea kokatutako udalerriko erroldan inskribatzean, erroldako antzinakotasuna galtzen dela, eta, horrek arazoak sortzen ditu gizarteratze baliabide bat esleitzeko prozeduran aurretiazko errolda denbora beharrezkoa bada. Horrez gain, diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko, udalerriko erroldan aurretiazko inskribatze denbora egotea beharrezkoa da, nahiz eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak erroldarik gabeko aldiak onartzen dituen espetxeratze egoeretan edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren aitorpenerako eta etxebizitza publikoen eskatzaileen erregistroan (Etxebiden) inskribatzeko. Erroldan aurretiaz inskribatutako aldia egiaztatzea betekizun oso garrantzitsua da euskal gizarte babeseko sistemaren zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko.

## **2. OHARRAK**

### **2.1. Erroldaren esanahia eta funtzioak**

Udal errolda udalerriko bizilagunak jasotzen dituen administrazio erregistroa da. Bertako datuak, udalerrian bizitzaren eta ohiko etxebizitza bertan izatearen frogak dira. Espainiako estatuan bizi den pertsona oro behartuta dago ohiko bizilekua duen

udalerriko erroldan izena ematera. Udalerrri bat baino gehiagotan bizi dena urtean denborarik gehien egiten duen horretan bakarrik inskribatu beharko da.

Udal errolda egin, mantendu, berrikusi eta zaintzea udalei dagokie, Erroldatze Kontseiluak hala proposatuta, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eta Administrazio Publikoen Ministerioak batera onartu dituzten arauekin bat etorriz. Udal erroldaren berrikuspena urte bakoitzeko urtarrilaren 1eko erreferentziarekin jasotzen da.

Errolda, administrazio erregistro bat da, aipatu dugun moduan. [Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen](#) 16. artikuluan xedatuta dago "udal errolda dela udalerrri bateko bizilagunak jasotzeko administrazioaren erregistroa.../....". Administrazio erregistroek, erregistro juridikoek ez bezala, ez dute ondorio juridikorik bertan jasota dauden egitate, egintza edo eskubideetarako.

Biztanleen udal erroldan izena emateari dagokionez, zera hartu behar da abiapuntutzat: erroldatzea ez da eskubide bat bakarrik, eta, ondorioz, pertsonak daukaten betebeharrak bat da, bizi diren udalerrian erroldatuta egon behar baitute. Udal errolda hori –uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartu zuen Toki Erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudia aldatzen duen [abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren](#) 53. eta 54. artikuluekin bat eginez- udalerrri bateko bizilagunak jasotzen dituen erregistroa da, euren ohiko etxebizitzaren arabera. Eskubideak eta betebeharrak herritarra izateak ematen ditu, ordenamendu juridikoak ezartzen duen moduan.

Aipatu den moduan, administrazio erregistroek, erregistro juridikoek ez bezala, ez dute ondorio juridikorik sortzen egitateetan, ekimenetan edo eskubideetan. Erroldan inskribatuta egoteak ondorio garrantzitsuak ditu pertsonen eskubideetan, <sup>3</sup> hala, bizilagun izaera eskuratzen dutelako, eta erroldatuta egotea eskubide zibilak (besteak beste, politikan parte hartzeko) eta sozialak (osasun txartela izatea, gizarte laguntzak eskatzea, babestutako etxebizitzak eskatzea, eta abar) egikaritzeko betekizuna da. Errolda ziurtagiria, beharrezkoa da administrazio publikoarekin harremanak izateko, eta ezinbesteko baldintza da zerbitzuak eta prestazio publikoak eskatzeko. Eskubideak erabiltzeko eskaerak arautzen dituen arautegiak erroldan inskribatuta egoteari buruzko ziurtagiria (edo errolda-agiria) ezarri du aurkeztu beharreko agirien artean, esate baterako, osasunerako, doako justiziarako, beketarako eta gizarte babeserako eskubideei dagozkienak. Azken finean, erroldatuta ez egoteak, ondorioak sortzen ditu herritarren eskubideetan eta betebeharratan.

<sup>3</sup> Horrek esan nahi du, honakoak egin daitezkeela: hauteskunde legeriarekin bat eginez, hauteslea eta hautagarria izatea, legeetan xedatutakoaren arabera udal kudeaketan parte hartzea, udal zerbitzuak erabiltzea (besteak beste, gizarte etxeak, liburutegiak, kirol instalakuntzak, eta abar), prestazio ekonomikoen eta pertsonalen bitartez udal eskumenak egiteko ekarpenak egitea, informazioa jasotzea aurretiaz eskari arrazoitua egin ondoren, eta udal administrazioan eskariak egitea udaleko espediente eta dokumentazio guztiari dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua betez, legean aurreikusitako terminoetan herri galdeketak eskatzea, prestazioak eskatzea, eta, hala badagokio, dagokion zerbitzu publikoa ezartzeko eskatzea, derrigorrezko udal eskumena baldin bada, Tokiko araubideen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 18. artikuluekin bat eginez.

Ondorioz, funtzio garrantzitsuak ditu politika publikoen tresna edo administrazio publikoen informazio eta kontrol iturri gisa, eta pertsonen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko baldintzatzailea da. Beraz, errolda, oso garrantzitsua da, eta ezinbesteko elementua da gure autonomia erkidegoan bizi diren pertsonen egunerokotasunean.

## 2.2. Zigorrek gizarteratzeko elementu gisa bideratzea

Presoen tratamenduari buruzko Nazio Batuetako eta Europako espetxe arauak osatzen dute zigorrek gizarteratzeko elementu gisa bideratzearen printzipio hori,<sup>4</sup> [Espainiako Konstituzioaren](#) 25.2. artikuluan jasota dagoena eta [irailaren 26ko 1/1979 Espetxeen Lege Organikoan](#) garatutakoa. Ez da kasualitatea Espetxeen lege organikoa demokrazian onetsitako lehen lege organikoa izatea. Bere garaian, Europako, eta, horrenbestez, munduko espetxe lege aurrerakoienetakoa izan zen.

Zoritxarrez, Espetxeei buruzko Lege Organiko horren orientazioa hutsaldu egin da zigor eta espetxe legerian ezarri diren askotariko zigor erreformen bidez, bereziki, 1995etik aurrera ezarritakoak (besteak beste, lan eginez penak luditzea edo berrikusi daitekeen espetxe zigor iraunkorra ezartzea).

Hala ere, Arartekoaren ustez, ezinbestekoa da Espainiako Konstituzioaren 25.2. artikuluko benetako indarraldia aldarrikatzea<sup>5</sup>:

*“Askatasun bazterte zigorrek eta seguritate neurriek birheziketa eta gizartean bersartzera joko dute eta ez dira izango lan bortxatuak. Presondegira kondenatuak, hura betetzen ari baldin bada, kapitulu hontako oinarrizko eskubideez goza dezake, baina ez espreski huts kondenatorio arazoagatik, zigor zentzu eta presondegí legeagatik mugaturik daudenak. Edonola ere, lan ordaindu batetara eskubidea izango du, eta baita giza asegurantzari dagozkion etekinetera ere, kultura sarbidera eta bere nortasun osoko hazkundera.”*

Are osatuagoa da Espetxe Araubidearen 3.3. artikulua ([Espetxe araubidea onesten duen otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretua](#)):

*“Principio inspirador del cumplimiento de las penas y medidas de seguridad privativas de libertad será la consideración de que **el interno es sujeto de derecho** y*

<sup>4</sup> [Presoen tratamendurako Nazio Batuen gutxieneko arauak](#) (Nelson Mandela arauak) (Batzar Orokorrak 2015eko abenduaren 17an onetsitako ebazpena). 4.1. araua. *“Zigorren eta askatasuna kentzen duten neurrien helburua nagusia, gizartea delituetatik babestea eta berrerortzea gutxitzea da. Helburu horiek lortzeko, pertsonen askatasunik gabeko aldi hori aprobetxatu egin behar da, ahal den heinean, preso-ohiak aske izatean gizarteratzeko, eta legearekin bat eginez bizitzeko eta lan eginez beren burua mantentzeko”.* [Europako Kontseiluaren Rec\(2006\)2 Gomendia, estatu kideen Ministro Batzordearena, Europako Espetxe Arauei buruzkoa](#). Zigorra jaso duten presoak askatzea. 107.1. araua. *“Zigorra jaso duten presoek laguntza eskainiko zaie askatu aurretik, eta prozedura eta programa bereziak egongo dira, espetxetik ateratzen direnerako prestatzeko eta legeak errespetatuz gizartean bizitzeko”.*

<sup>5</sup> [Auzitegi Konstituzionalak](#) adierazi zuen, Konstituzioaren 25.2. artikuluan ez dagoela gizarteratzeko ezinbesteko eskubidea jasota, baina, hala ere, errespetatu egin behar direla *“espetxe legeriako mekanismoak eta erakundeak, berriz ere gizarteratzea bermatzeko helburua dutenak, edo, gutxienez, gizarteratzea oztopatzen ez dutenak, eta, hain zuzen ere, zigorra betetzen den aldian, askatasunean bizitzeko prestakuntza eskaintzen dutenak”* [112/1996 AKE, ekainaren 24koa](#) (BOE, 182. Zk., 1996ko uztailaren 29koa).



*no se haya excluido de la sociedad, sino que continúa formando parte de la misma. En consecuencia, la vida en prisión debe tomar como referencia la vida en libertad, reduciendo al máximo los efectos nocivos del internamiento, favoreciendo los vínculos sociales, la colaboración y participación de las entidades públicas y privadas y el acceso a las prestaciones públicas”.*

### 2.3. Presoak erroldatuta egotea

[2020ko apirilaren 29ko ebazpenaren](#) 3.4. puntuan haxe dago jasota:

*“Presoak erroldatzea. Espetxea kokatutako udalerrian presoak erroldatzeko, presoek eskaria egin beharko dute. Presoen nahitaezko erroldatzea onartzeak, espetxekoaz gainerako zigorra ezartzea ekarriko luke, eta, berariaz aurreikusita ez dagoenez, Espainiako Konstituzioaren 25. artikuluan aurreikusitakoaren aurkakoa litzateke.*

*Alderantziz, presoek eskubidea dute ohiko etxebizitza gisa errolda ondorioetarako esleitutakoa aukeratzeko, eta, beraz, egoitza eraginkorra ez da kasu hauetan aplikatu beharreko irizpidea. Horri buruz ezarri daitekeen muga bakarra da erroldarako aukeratutako etxebizitzarekin loturarik ez egotea (edo egon bada ere, jada ez existitzea horrelakorik). Adibidez, etxebizitzan beste pertsona batzuk bizi direlako eta presoak horiekin harremanik ez duelako, edo etxebizitzan erroldatutako pertsonak, modu arrazoituan preso dagoen pertsonaren baja eskatu dutelako”.*<sup>6</sup>

Ikusi dugun moduan, Espainiako ordenamendu juridikoan, errolda administrazio erregistroa da (egitateak jasotzen dira, ez eskubideak), eta bere araubidea, udalek modu sinesgarriagoan une bakoitzean udalerrian benetan bizi diren pertsonak erregistratzera bideratuta dago. Hala ere, konstituzioan jasota dagoen zigoren gizarteratzeko xedea arau orokor horren salbuespen nagusia da, eta preso dauden pertsonen eragiten die, kontuan hartuz, 2.1. puntuan azaldu bezala, erroldatuta egotean eskubide garrantzitsuak eskuratzen direla, eta, horiek, ezinbestekoak direla preso ohiak askatasunean bizitzen hasten direnean gizarteratu daitezten.

Horregatik, lehenik eta behin azpimarratu behar da, **presoen udalerrian familia eta/edo gizarte harremana izaten jarraitzen badute, udal erroldako arduradunek ezingo dutela ofiziozko baja aplikatu** pertsona horiek preso egoteagatik, eta, beraz, kasu honetan aplikatu beharreko irizpidea, ez da bizileku eraginkorrena. Horregatik, Arartekoak ezinbestekotzat jotzen du presoek jatorrizko udalerriko errolda ez galtzeko neurriak eta protokoloak ezartzea, izan ere, hasiera batean, udalerriri horietan hasi beharko lituzkete askatasunean bizitzeko gizarteratze prozesuak, espetxe araubide irekiaren aukera ezberdinen bitartez, hain zuzen ere.

<sup>6</sup> Testu hori indarrean zegoen jada 2015eko araubidean. [2015eko martxoaren 16ko ebazpena](#) dazkariordetzarenak, Estatistikako Institutu Nazionalaren Presidentearen eta Autonomia Erkidegoen eta Toki-Erakundeen Eskumenen Koordinazioaren Zuzendaritza Orokorren 2015eko urtarrilaren 30eko ebazpena argitaratu zuenak, udalei errolda kudeatzeko jarraibide teknikoak ematen dizkienak.

Aipatutako artikuluan xedatuta dagoen moduan, **presoak espetxeratu ondoren udalerrian erroldatuta jarraitzeko duten eskubidearen muga bakarra, erroldatutako etxebizitzarekin duten lotura galtzea izango da**, bai helbide horretan inskribatutako pertsonak presoarekin zuten harremana galdu dutelako, bai arrazoituta bere baja eskatzen dutelako, edo baja eskatzen dutenak, etxebizitzan bizi diren beste pertsona batzuk direlako.

Araudi aurreikuspen horrek ez dio erantzuten preso dagoenaren familiak udalerrri berean etxebizitza aldatzearen aukerari. Arartekoaren ustez, kasu horretan, arauaren muina kontuan hartu beharko litzateke, hau da, preso dauden pertsonak espetxean dauden bitartean erroldatuta mantentzea, eta, beraz, udalerriek, beharrezko mekanismoak ezarri beharko lituzkete erroldatuta mantentzearen printzipioa eraginkortasunez gauzatu dadin horrelako kasuetan.

Bukatzeko, ezinbesteko erroldaren bitartez gizarteratzea bermatzeko, **presoek, betiere modu askean, espetxea kokatuta dagoen udalerrian erroldatzea eskatu ahalko dute**, baldin eta espetxean egon diren aldian, jatorrizko udalerrietako errolda galdu badute. Espetxean erroldatzearen aukera, aurretik aipatu dugun moduan, pertsonak espetxea kokatutako udalerrian gizarteratzeko prozesuak hasi ahal izateko duten eskubidearen ondorioz sortzen da, betiere, jatorrizko udalerrian loturarik edo erroldarik ez dutenean gizarte eta familia harremanak galdu dituztelako bizitzan eta espetxean egon diren denboran zehar. Aurreikuspen hori benetan garrantzitsua da gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboekin horrelako prozesuak ezartzeko, besteak beste, preso dauden atzerritarrekin edo emakumeekin. Adibidez, zenbait emakume presoren kasuan, jatorrizko lekura itzultzea ez da gomendagarria izaten genero indarkeria sufritu dutenean, eta, beraz, emakume horiek, indarkeria jasandako lekuetatik urrun dauden tokietan gizarteratze prozesuak hasi behar izaten dituzte.

Gainera, espetxean erroldatu ahal izateko, interesatuek jakin behar dute erroldan bajaran emanda daudela, eta, horretarako, jakinarazpenak egin behar dira eta bitartekoak ezarri behar dira informazio hori eskuratzeko, eta aukera horren inguruan hausnartu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, aurrekoak oinarri hartuz eta [otsailaren 27ko 3/1985 Legeak](#) –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarri duenarekin bat etorritik, honako gomendio hau egin diegu EAEko udalei:

### GOMENDIO OROKORRA

1. Presoak espetxean dauden bitartean, udalerrian erroldatuta jarraitzea.
2. Ez hastea araubidean ezarritako ofiziozko bajaren prozedura, jakiten dutenean, pertsona hori espetxean dagoela zigorra betetzen.

3. Legez bajaran eman behar bada, presoak zigorra betetzen ari den espetxeko gizarte zerbitzuei horren berri ematea, eta, hala, presoak espetxea kokatuta dagoen udalerriko erroldan inskribatu ahal izatea, udal erroldako antzinakotasuna ez galtzeko, hain zuzen ere.
4. Protokolo bat edo jarraibide batzuk sortzea udaleko arloen jarduteko moduari buruz, jakiten dutenean udalerriko bizilagunak espetxean zigorra betetzen ari direla, eta, era berean, aurreikusten denean, gizarte zerbitzuek esku hartuko dutela gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskua duten pertsonekin.

Protokolo horretan ezarri beharko litzateke, espetxea kokatutako udalerrian erroldatu ahal izatearen aukera, bakarrik presoak modu askean hori eskatzen duenean aplikatu beharko litzatekeela, jatorrizko udalerriko gizarte eta familia harremanak guztiz galdu dituelako, hain zuzen ere.

5. Bukatzeko, garrantzitsua da gogoratzea araubidean jasota dagoela gizarte zerbitzuetako helbidean inskribatzearen aukera, betiere, egiaztatzen bada, udalerrian modu eraginkorrean bizi dela, bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituen etxebizitza batean bizitzea eta/edo etxebizitzarik ez izatea barne, izan ere, pertsona batzuk egoera horretan egon daitezke espetxetik atera ondoren.

**ararteko**

Herriaren Defendatzailea

*Defensoría del Pueblo*